

GURE IDEIA

Ideiaaren aurkezpena:

Aurrezteko aplikazio doakoa da, edonork erabili dezakeena eta Andorideko zein App Store eta Play Store-en deskargatu ahalko dena.



Lehenik eta behin, aipatu beharra dugu aplikazio edo gure ideia honen helburua. Jendeak modu dibertigarrian aurrezteko sortu nahiko guke aplikazio hau eta baita gizartean laguntza behar duten pertsonen beste modu batean laguntza hori eskaini ahal izateko ere.

Gainera, gaur egun, teknologia berriek indar handia dute gure artean, horregatik, egungo egoerara ongi egokituko litzatekeela deritzogu eta funtzionatu zezakeela. Gutxi dira mugikor bat ez duten pertsonak, eta asko dira mugikorrean egunero deskargatu eta erabiltzen ditugun aplikazioak, beraz, ez da zaila izango beste aplikazio bat gehiago deskargatzea.

Aplikazioa 2 zatitan banatuta dago:

Aplikazioan sartzerakoan, erabiltzaileak izena eman beharko du gmail edo telefono zenbaki bat sartuz eta pare bat datu pertsonal emanaz (adina, generoa, bizilekua...).

Bestetik, aplikazioak beste zati bat du non bakoitzak lortu nahi duen zerbait aukeratzen duen eta aplikazioak helburu hori lortzeko laguntza ematen dizu. Alegia, kotxe bat erosi nahi baduzu aplikazioan momentuz duzun dirua sartu dezakezu banku baten laguntzaz, eta horren truke aplikazioak aukera emango dizu lehen aiptautako lanak egiteko eta horietatik dirua irabazi ahal izateko. Gainera, zenbat diru falta zaizun hori lortzeko ere adierazten duzu, horrela, aplikazioak ibilbide bat sortuko du zure helburuaren arabera eta astero edo horrela mezuak bidaliko dizkizu zugar motibazioa sortzeko.

Zati honetan, aurreko zatian irabazi ahal izan duzun dirua gehituko zaizu aurrekontura zure ibilbidean aurrera egin ahal izateko.

Ondoren, menu antzeko bat agertuko da non aplikazioaren bi zatiak banatuta agertuko diren, alegia, alde batetik, aplikaziotik kanpo edo egin beharreko eginkizunen zatia ageriko da (benetan egin beharreko ekintza). Bertan, erabiltzaileak nahi izanez gero, izena eman ahalko du aplikazioak eskaintako zerrenda batean eta horren bidez, edonork eskatu ahalko du zerrenda horretan dagoen edozeinen laguntza. Erabiltzaileak laguntza eman ahalko du nahi badu eta laguntza eskatu duenak aukeran izango du zenbateko dirua ordaintzea laguntzaileari, laguntzak edozein motatakoak izan daitezke, esaterako, agure bat laguntzea erosketekin etxera heldu arte.